



Baiona, 2009ko ekainaren 10a

Eusko Jaurlaritzaren eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko DIRU-LAGUNTZEN EBAZPENAREN AURKEZPENA

Ezer baino lehen, Eusko Jaurlaritzako ordezkarien izenean, nire agurrik zintzoena adierazi nahi diet Iparraldeko agintariei eta hona etorri zareten gainerako guztioi ere.

2007an sinatu zen Hitzarmen-markoaren bitartez Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak euskararen gaineko hizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzaren aldeko borondatea agertu zuten eta erakunde mailako harreman iraunkorrak ezartzeko eta garatzeko bideak finkatu ziren.

Oso pozgarria da guretzat aurreko urteetan urratutako bideari jarraipena ematea, eta horrelaxe adierazi diegu Euskararen Erakunde Publikoaren ordezkariari. Honezaz gainera, Euskararen Erakunde Publikoa egiten ari den lan bikaina goraiatu nahi dugu, euskara Ipar Euskal Herrian sustatuz eta hedatuz, euskararekiko guk dugun sentimenduarekin zeharo bat baitator. Badakite lan honetan beti gure laguntza izango dutela.

Hitzarmen honen helburuetatik bat da bi partaideek eraturiko lankidetzaren fondo bat sortzea, Ipar Euskal Herriko eragileen hizkuntza jardueren proiektuak sostengatzeko. Hitzarmenean finkatutakoaren arabera, urtez urte adostu dira Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak elkarlanean gauzatuko ziren programa zehatzak.

Aurten, sinatutako hitzarmenak Ipar Euskal Herriko eragileek aurkezturiko egitasmoak laguntzeko oinarriak ezartzeaz gain, erakunde biok elkarlanean garatzen ari garen bestelako egitasmoak ere jasotzen ditu: Euskal Herriko Adierazleen Sistema elikatzeko informazioa trukatzeko (migrazio mugimenduak, bilakaera soziolinguistikoa, e.a.), terminologia eta toponimiaren alorrean lankidetzaren garatzea eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen arloan

Euskararen Erakunde Publikoak abian jarri nahi duen egiaztatze sistema Euskal Autonomia Erkidegoko sistemarekin baliokide gertatzeko moduak lantzea.

Egitasmo hauek guztiak garatzeko erakunde bietako talde teknikoen arteko harremanak abian dira; informazioa trukatzeko zenbait saio izan da eta, beraz, elkarlanerako oinarriak zehaztu dira.

Hitzarmena 2007-2010 bitartean izango da indarrean, baina Eusko Jaurlaritzaren aldetik akordioari aurrerantzean ere jarraipena emateko asmo sendoa dugu, euskararentzat eta gure herritarrentzat elkarren arteko lankidetzaz ezinbestekoa delako uste osoan baikaude.

Mila esker.

Blanca URGELL

Kultura sailburua